

## **FUNTZESKO ELKARTEAK**

Negozio eredu batek funtzionatzea ahalbidetzen duen hornitzaile eta bazkideen sareak osatzen ditu funtzesko elkarteak. Askotariko arrazoiengatik ezar ditzake itunak enpresa batek: bere negozio-eredua optimizatzeko, arriskuak murrizteko eta baliabideak eskuratzeko. Gure produktua higieinarekin erlazionatzen denez, hainbat hornitzaile izango ditugu.



Enpresa batek izan ahal dituen elkarte motak ugariak dira.

Alde batetik elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoa egingo dugu Oral B enpresarekin. Oral B aho-higiene-produktuen marka bat da, eskuzko eta hortzetako eskuila elektrikoak, hortzetako pasta, aho-garbigailuak eta haria saltzen dituenak. Baina ahozko higieinarekin erlazionatuta dagoen edozein produktu saltzen duten arren, guk sortutako "Domokup" produktua beraientzat zerbait berria izango da eta beraien erosleak hortzetako eskuila garbi mantentzeko produktu berritzailea erosteko aukera izango zen.

Beste elkarte bat "ACTECO" enpresarekin izan ahalko zen, berrerabilitako plastikoak gestionatzen duen enpresa bat gure ingurunea zaintzen duena. Enpresa honek berrerabilitako plastikoa bermattuko digu gure produktua produzitu ahal izateko. Trukean guk beraien enpresa promozionatuko dugu, enpresaren izena produktuaren kaxan erakutsiz.

Elkarte hau erosle eta hornitzaileen arteko elkarte bat izango zen, enpresa honi esker guk gure jarduerak aurrera eraman ahalko ditugulako.



Aurretik aipatutako elkarteari erreferentzia egiten, Fagor Elektronikarekin ere aliantza bat egingo dugu. Beraiek guri plaka nagusiak eskeintzen digute, guk gure enpresaren irabazien %8a emango diegu. Plaka nagusiei

esker automatikoki goikaldeko domoa programatzeko aukera izango dugu, horrela domoa ireki eta itxi egingo da.

Gure webgunean eta denda fisikoan produktuta saltzeaz gain, parafarmazia katean ere salduko dugu. Gure produktua aho-higienearekin erlazionatuta dagoenez, farmazieri ere interesatzen zaie gure produktu berritzailea beraien eskuetan izatea. Zehazki, FarmaFerrer izeneko farmazia katearekin sortuko dugu elkarte harremana. Bertan, urte asko daramatzate beraien farmaziatik beraien pazienteen osasuna hobetzeko lanean, eta orain denbora horretan hurbildu nahi gaitue komunikazio-kanal honetatik, aukera ematen baitigu produktuak eta zerbitzuak erosoago eta betiko kalitate berarekin eskaintzeko.

